

## / Nabarmenezkoak

- > Tantakkak "Utzi zure mezua seinalearen ondoren" ekarriko du Getxora (3. or.)
- > "Wanted" programak hamargarren urteurrena ospatuko du Muxikebarrin (3. or.)
- > Iñaki Salvador jazz pianistaren kontzertua "Neguko Bidaia"n (3. or.)

Fadurako Garagardotegi zaharrak erabilera soziala lantzeaz gain, kirolarekin loturiko proiektu berriak babestuko ditu (4. or.)



**Kontzertua: gitarra flamenkoa.**

Urtarrilak 31, ostirala, 20:00etan,  
Muxikebarrin (Ereaga aretoan), Rafael Riqueni. Sarrera: 12€.

**Kontzertua.** Otsailak 2, igandea, 19:00etan,  
Muxikebarrin (Arrigunaga aretoan), Steven Lin piano-jotzaile taiwandarra. Sarrera: 12€.

**A-  
GENDA**

## Abian da 2021eko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea

Urtarrilaren 24tik otsailaren 6ra bitartean, 2021eko aurrekontu parte-hartzaileen lehenengo fasea garatuko da. 2017tik aurrera, prozesu hori finkatuta dago, eta herritarrek ekarpenak modu erraz eta argian egin ahal dituzte.

Aurrekoetan bezala, getxotarrek proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte, eta horiek aztertu eta aintzat hartuko dira, betiere udal eskumenekoak badira, lurraldearen oreka mantentzen badituzte eta teknika edota ekonomia aldetik bideragarriak badira. Ekarpentzen arlo hauekin egon daitezke erlazionatuta: Kultura, Euskara, Berdintasuna, Gazteria, Ingurumena, Gizarte Zerbitzuak, Hirigintza, Sustapen Ekonomikoa eta Turismoa.

Proposamenak Getxon errolatuta eta 16 urte baino gehiago dituen edozein pertsonak aurkez ditzake; izaera juridikodun erakunde baten ordezkariak eta erakundea modu iraunkorrean Getxon badaude -betiere Getxon errolatuta badaude eta 16 urte baino gehiago badituzte-.

Parte hartzeko bideak:

1. **Webgunea:** [www.getxo.eus/partehartu](http://www.getxo.eus/partehartu)
2. **Kutxa:** Herritarren Arretarako Bulegoetan; Andra Mari, Gobelak eta Fadurako kiroldegietan; Romo Kultur Etxean eta Villamonteko Kultur Etxean.
3. **Email:** Eskaneatutako inprimakia bidaliz [gobernuirekia@getxo.eus](mailto:gobernuirekia@getxo.eus)



helbidera.

4. **Postontziak:** Algorta, Areta eta Bide-zabal geltokien inguruetan.

5. **Karpak:**

- **Asteazkenean, urtarrilaren 29an:** Algortako metro-geltokiaren inguruetan.

- **Ostegunean, urtarrilaren 30ean:** Algortako metro-geltokiaren inguruetan.

- **Ostiralean, urtarrilaren 31n:** Areetako metro-geltokiaren inguruetan.

Ondoren, udal teknikariek aztertuko dute herritarren proposamenen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa. Baldintza guztiak betetzen dituzten proposamenak proiektu bilakatuko dira.

Udalak jakinaraziko du aukeratutako proiektuen behin betiko zerrenda eta, bigarren fasean, Getxoko bizilagunen lehenetsiko dituzte proiektuak. Behin prozesua amaituta, herritarrentzako itzulketa txostena egingo da eta, bertan,

hartutako proposamen eta erabakien arrazoiak azalduko dira.

Informazioa: <https://www.getxo.eus/eu/gobierno-abierto/participacion/presupuestos-participativos-2021>

Düsseldorf Boot 2020 uretako aretoa ere joango da

## Turismo Bulegoak kalitatearen Q ziurtagiria berritzeko diploma jasoko du FITUR azokan

Getxoko Turismo Bulegoak FITUR Nazioarteko Turismo Azokan hartuko du parte, beste urte batez. Bertan, kalitate turistikoaren Q ziurtagiria berritzeko diploma jasoko du, turistei eta bisitariei eskaintzen dizkien produktuen eta zerbitzuen kalitatea ziurtatzen duen sistema. Azken azterketan 971,66 puntu lortu zituen 1.000 puntutik.

Getxoren eskaintza Eusko Jaurlaritzaren Turismo Sailaren *Euskadi-Basque Country* standean egongo da, Bilboko eta Bizkaiko erakargarri turistikoak biltzen dituen, Foru Aldundiak koordinatuta. Stand honetan aurreikusitako programazioaren barruan, *DEAPIE: ibilbide autogidatuak* proiektua aurkeztuko dute. Proiektu horretan, Getxoko arkitekturaren eta paisaia onarritutako ibilbide kulturalen bidez, udalerrira eta bertako jendea ezagutzeko modu berri bat eskaintzen da. Sektoreko udalerriko hainbat enpresa ere azokara joango dira euren eskain-

tzaren berri ematera.

**Gure eskaintza turistikoa**

Getxo ikusgarri dago bai Euskadiko Euskal Kostaldearen eta jaialdien, musikaren, kirolaren ... eskaintza turistikoa jasotzen duten liburuxken bidez, bai, besteak beste, *Getxo* sustapen-li-

buruxka berritua barne hartzen duten liburuxka eta dossier turistikoaren bidez. Euskarri horretan koloreak eta argazki ederrak dira nagusi, eta udalerrira osoa aurkeztu da bertan honako gai hauen pean: naturala, monumentala, kalitatea, kulturala eta kirola. Abrako Badiako hiru udalerrira turisti-

koetako mapa turistikoak ere aurkeztuko ditu: Santurtzi, Portugalete eta Getxo; *Getxo gozatzeko planak* liburuxka, gai hauetan sailkatuta: Aktiboa, Kostaldea, Monumentu-kulturala eta Gastronomia; baliabide turistiko nagusien liburuxkak, Bizkaia Zubia, Portu Zaharra, Galea; edo Getxoko ondarearen aldeko ibilbideen flyerra, teknologia eta gailu mugikorren bidez. Getxoko eta Euskadiko 2020rako ekitaldi nagusien agenda ere bertan izango da.

**Getxo Düsseldorf BOOT 2020an**

Getxoko Turismo Bulegoa ere bertan izango da, promozio-liburuxken bidez, Boot 2020-Düsseldorfeko Nautika Aretoran, urtarrilaren 26ra arte. Topaketa hau munduko lehena da itsas kirol eta itsasontzietan. Getxoko eskaintza bi standetan egongo da: Estatuko portuenean (gurutzatzen eta luxuzko yateen helmuga gisa) eta North Marinasenean (kirol-portuak).





### URTARRILAK 23 OSTEGUNA

**GetxoLive!** Nevada taldearen kontzertua (popa), 20:00etan, Kandilejas tabernan (Romo). Sarrera dohainik.

**Haurrentzako ipuin kontaketa eta tailerra.** Romoko (17:00-18:00) eta Villamonteko (18:30-19:30) liburutegietan, Liburutegiak Topa-leku ekimenaren barruan eta Matiz elkartearen "Zurekin buru-belarri, kontu kantari: Bizikidetzarako liburutegiak" programaren eskutik. Euskaraz eta gaztelaniaz. Adina: 4-6 urte (heldu batekin). Leku-kopuru mugatua. Izen ematea: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz).

**Irakurzaleen txokoa,** Iñigo Astizekin, "Analfabetoa" liburua, 19:30ean Villamonteko Kultur Areatan. Egizuk antolatuta

### URTARRILAK 24 OSTIRALA

**Zine-kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "Hasta siempre, hijo mio" filmaren proiektzioa. Zuzendaria: Wang Xiaoshuai. 12 urtetik aurrera. Sarrera: 3,50€.

**Haurrentzako ipuin kontaketa eta tailerra.** Romoko (17:00-18:00) eta Villamonteko (18:30-19:30) liburutegietan. Adina: 4-6 urte (heldu batekin). Leku-kopuru mugatua. Izen ematea: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz).

### URTARRILAK 25 LARUNBATA

**Antzerkia.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 20:00etan, "Deje su mensaje después de la señal", Tanttakarekin. Sarrera: 12€.

**Neguko Bidaia zikloa.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Iñaki Salvador jazzeko pianistaren kontzertua. Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€).

**Dantza.** Utopian gunean (Errotatxu), 20:00etan, "Bobo", Koldo Arotegiren eskutik. Sarrera: 10€.

**Ingurumen Areato.** Familientzako Escape Room-a. Bi saio: 10:15ean eta 12:15ean.

### URTARRILAK 26 IGANDEA

**Haur Zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Las aventuras del pequeño Colón". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

**Ingurumen Areato.** 10:30-13:30. Txiki tailerrak: egin ezazu pampina galtza bakeroeekin! (6-14 urte).

### URTARRILAK 27 ASTELEHENA

**Mugabarik.** Norbanakoen trebatze eta garapenerako Elkarte. Toskanako herri eta margolari buruzko triptikoa. Lehenengo hitzaldia: "La Toscana y sus pueblos". Hizlaria:

Emilio Melón Ortega, Arte Ederretan aditua. 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean. Sarrera dohainik.

### URTARRILAK 29 ASTEAZKENA

**Versadas olerki kluba.** Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, norberaren zein beste batzuen olerkiak irakurri edo entzun nahi dituzten olerki zaleen saioa. Oraingo honetan: Estefanía Cabello.

### URTARRILAK 30 OSTEGUNA

**GetxoLive!** La Tropa taldearen kontzertua (popa), 20:00etan, Fangalokan (Azkorri). Sarrera dohainik.

**Haurrentzako ipuin kontaketa eta tailerra.** Romoko (17:00-18:00) eta Villamonteko (18:30-19:30) liburutegietan. Adina: 4-6 urte (heldu batekin). Leku-kopuru mugatua. Izen ematea: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz).

### URTARRILAK 31 OSTIRALA

**Kontzertua: gitarra flamenkoa.** Muxikebarrin (Ereaga aretoan), 20:00etan, Rafael Riqueni. Sarrera: 12€.

**Kontzertu didaktikoa.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, harizko instrumentuen kontzertua. 11:00etan (ikasleentzat) eta 18:00etan (Musika Eskolako ikasleentzat eta beren familientzat).

**Zine-kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Animales nocturnos" filmaren proiektzioa. Zuzendaria: Tom Ford. 16 urtetik aurrera. Sarrera: 3,50€.

**Haurrentzako ipuin kontaketa eta tailerra.** Romoko (17:00-18:00) eta Villamonteko (18:30-19:30) liburutegietan. Adina: 4-6 urte (heldu batekin). Leku-kopuru mugatua. Izen ematea: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz).

### OTSAILAK 1 LARUNBATA

**Neguko Bidaia zikloa.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Angéline Danel sopranoa eta Marion Desjacques arpa-jotzailea. Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€).

**Ipuin kontaketa haurtoentzat: Storytime for babies.** Algortako Kultur Etxean, 10:30ean eta 11:45ean, Kids&Us Getxo-Algortaren eskutik, "Mousy and the big red ball". Ingelesean. Adina: 10-36 hilabete. Sarrera: Kids&Us Algortan jaso beharreko gonbidapenez.

**Ingurumen Areato.** Familientzako Escape Room-a. Bi saio: 10:15ean eta 12:15ean.

### OTSAILAK 2 IGANDEA

**Kontzertua.** Muxikebarrin (Arrigunaga aretoan), 19:00etan, Steven Lin piano-jotzaile taiwandarra. Sarrera: 12€.

**Haur Zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Terra Willie. Lur ezezaguna". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

**Ingurumen Areato.** 10:30-13:30. Familientzako ibilbide gidatua: Bole Hezeguneko hegaziak.

bideoak eta familiaren pelikula. Pasatu DVD formatora. Tel.: 630 26 58 75.

- **Salgai** trastelekua Negurin. Tel.: 630 711 512.

- **Neska eskarmentuduna** lan bila dabil garbitzeko, orduka edo lanaldi osoa. Erreferentziakin. Tel.: 612 57 27 95.

- **Lan bila nabil** pertsona nagusiak zaintzeko etxean bizitzen. Tel.: 632 518 414.



- **Ohatila ANDULATZAILEA.** Jatorrizko balioaren %50ean saltzen dut. Tel.: 662 142 396 (Angel)

- **Berreskuratu** zure argazkiak,

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia erantzule izango.

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi-tzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: **Ainhoa Galduroz** Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza,

**Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.** Urgull kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: [getxokoudalaprensa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprensa@getxo.eus) Arte arduradunak: **Bostnan Bilbao, S.L.** Inprimaketa: **Comeco Gráfico Norte, S.L.U.** Banaketa: **Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua** Gordailu legala: BI-388-87

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

## Patinete elektrikoaren alokairu partekatuko proba, ordenatua eta kontrolatua

Getxon patinete elektrikoaren alokairu partekatua eskaintzeko 2019ko azken lau hilabeteetan egin den esperientzia pilotua izan da zerbitzu hori modu ordenatu eta kontrolatua eskaintzen duen Estatuko lehenengoetako bat, MPIrako (Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak) egokitutako geltokietan, leku estrategikoetan banatuta, patineteak aparkatzen diren lekuetan, ibilbideen jatorri eta helmuga gisa. APP bat deskargatu eta erabiliz, Euskooters enpresa, Bizkaiko ekintzaile osatua, zerbitzua garatuz joan da, Udalarekin lankidetzan, eta hautemandako beharretara eta herritarren eskarira egokitzuz.

Lehen esperientzia horren bidez, Udalak informazio eta datu gehiago jaso ditu alokairuko ibilgailu mota horien hiri-mikromugikortasunari buruzko hausnarketarako; nabarmentzeko da herritarren erantzun zibiko orokorra, ibilbideak eta adierazitako lekuetan aparkatzea errespetatuz, eta proba zero istripurekin amaitu dela.

Bestalde, proba pilotu honetan patinete elektrikoak bidegorrietatik eta gehienez 30 km/h-ko abiadura-muga duten guneetatik ibili ahal izan dira, inoiz ez espaloietatik. Udal Gobernuak uste du probak "erakutsi duela patinete elektrikoaren alokairu partekatuko sistema batek ez duela zertan kaos bat izan behar eta kalteak besterik ez eragin; aitzitik, sistema hori eredu ordenatu, kontrolatu baten bidez ematen bada, eguneroko mantentze-lanak eginez eta e-scooterrak behar bezala ibiltzeko eta aparkatzeko azpiegitura nahikoa izanez gero, balio bat baino ezin da izan. Getxo izan da MPIrako aparkaleku espezifikoko gaitu dituen lehen Udala, eta, hiri eta udalerrri batzuetan gertatzen den ez bezala, patinetez inbaditurik direnak, zerbitzu hori ordenatua eta kontrolatua izan da".

Ildo horretan, Euskooters enpresa iraunkortasunaren eta hiri-mikromugikortasunaren hobekuntzaren alde egiten duen apustuari balioa ematen dio. "Hondatzen diren patinete guztiak konpontzen dira, bateriak berrerailatzen dira ... gure helburua



zero hondakina sortzea da, eta autoa gutxiago erabiltzea, istripuen eta zirkulazio-gatazken lehen kausa baita". Oraingoan, udal Gobernuak proba lau hilabete hauetan jasotako datuak aztertuko ditu, Getxo 2030 Hiri Mugikortasun Iraunkorren Planaren (HMIP) esparruan. Plan horren helburua da, bertan jasotzen denaren arabera, "herritarrek mugitzeko eta tokietara heltzeko beharren arteko oreka bermatu nahi du, oro har, jasagarritasuna kontuan hartzen duen testuinguru batean, ingurugiroaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik, eta Europar Batasunaren eta garraio-sistemari eragiten dioten erakundearen xedepanak esparru gisa hartuta. Patinete elektrikoak errealitate bat dira dagoeneko gure hirietako mugikortasunean, eta, mugikortasun pertsonal iraunkorren sistema gisa, guri dagokiguna, gure eskumenen arabera eta Trafikoari buruzko Estatuko araudiaren barruan, gure kaleetan duten erabilera arautzea da; bereziki, oinezkoentzako arriskua saihestuz, patinete horiek joan-etorrietarako sistema gisa erabiltzen dituzten pertsonen segurtasuna bermatuz, aparkatzeko lekuak arautuz eta patinete enpresen ezarpena kontrolatuz alokairu partekatuan".

#### Datu batzuk

5.123 erabiltzailek erabili dute zerbitzua, eta, batez beste, 61 eta

66 joan-etorri egin dituzte egunero irailean, urrian eta abenduan (azaroan 23 egunez egin zuen euria, eta 32ra jaitsi zen). Adinen arabera, erabileren %64 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen dago; ondoren, %20, 35 eta 44 urte bitartekoei; %11,2, 45 eta 54 urte bitartekoei; %3,63, 55 eta 64 urte bitartekoei; eta %0,36, 65 urtetik gorakoei. Aplikazio mugikorra 8.188 pertsonak deskargatu dute (%73 gizonak eta %27 emakumeak). Erabiltzaileen %40 Getxoko izan zen, %15 Bilbokoa, %10 Madrilgoa, %5 Berangokoa, %5 Leioakoa, %5 Portugaletakoa eta %5 Bartzelonakoa; eta gainerako %15a Euskadiko, estatuko edo beste herrialde batzuetako udalerrietakoa.

#### Puntu eta zona erabilienak

Zerbitzua 9 punturekin hasi zen arren, herritarren eskariaren ondorioz (sare sozialen bidez, posta elektronikoaren bidez ...), 15ekin amaitu zen. Gehien ibili den eremua kostaldekoa izan da, Portu Zaharretik Bizkaia Zubiaraino; eta gehien erabili diren geralekuak, jatorrian zein helmugan, honako hauek: Lezama-Legizamon, Bizkaia Zubia, Ereaga eta Portu Zaharra. Fadura, Makaletako, Gobela eta Areeta, helmuga bezala erabili dira gehien bat. Euskooters enpresaren ustez, gainera, proba pilotu horrek "agerian utzi ditu behar eta eskari gehiago, Getxo eta Leioa, Berango edo Sopela bezalako udalerrri mugakideen arteko konexioa beharrezkoa dela eta baita EHUn Leioako UPV-EHUko campusarekiko konexioa ere".

### • Getxo Kirolak hilaren 27an itxita egongo da.

Getxo Kirolak-ek bere zaindariaren jaia ospatuko du datorren astelehenean, urtarrilak 27. Hori dela eta, Fadura, Gobela eta Andra Mari udal kiroldegia itxita egongo dira jendearentzat.



### Hermeneus World enpresa getxotarrak saria jaso du

Areetan Getxo Elkartearen kokatuta dagoena, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak deitutako Txikizkako merkataritzarako ideia teknologikoen lehiaketa irabazi du. Saria Europako Batzardeak saltoki txikiak biziberritzeko eta modernizatzen Europa osoko jardunbide onena dela aitortzeari gehitu behar zaio.

STAFF >



# Fadurako Garagardotegi zaharrak erabilera soziala lantzeaz gain, kirolarekin loturiko proiektu berriak babestuko ditu

Fadurako Garagardotegi zaharreko eraikinak bere alderik sozialena berreskuratuko du, eta bertan, tokiko enpresa eta proiektu berriei ere lekua emango zaie, ariketa fisikoaren inguruko produktuak edo zerbitzuak garatu nahi badituzte. 2017an, eraikina berriz diseinatzeko asmoarekin parte hartzeko prozesu espezifikoa garatu zen thinking Fadura programaren barruan; eta, azkenean, ekipamendua birgaitzeko aurreproiektua egin zen. Orain, prozesuan parte hartu duten hainbat eragilek proposaturiko ideiekin egindako aurreproiektua aintzat hartuta, oinarritzko proiektuaren diseinua egin da; horri jarraituko dio egikaritze-proiektuak eta, azkenik, higiezin birgaituko duen obra-proiektua gauzatu da, ondoren espazioaren birgaitzeari ekiteko. Proiektuan aurreikusita dago, batetik Garagardotegiaren alderik sozialena berreskuratuko duen eraikin bat altxatzea. Hau da, kirol taldeen bilerak eta ospakizunak, jarduera ezberdinak, erakusketak edo kirolarekin loturiko erakusketa edo proiektzioak egiteko leku bat. Eta, bestetik, kirolari loturiko enpresa berriei babesa emango die espazio horrek.

Espazio horretan egin daitezkeen jarduerak, beraz, askotarikoak izango dira eta eskakizun desberdinak behar dituzte, baina eraikinak batasun-irudia izango du bere osotasunean, eta kirol-erakundeentzako gizarte-zentro gisa garatzen ari zen jarduera ematen jarraituko dela bermatuko du.

## Hiru giro

Hala, higiezin hiru girotan proiektatzen da, eta horietako bakoitzaren egokitze mailaren arabera definituta geratzen da. Lehenengoa, gunee itxia eta girotua izango da; bigarrena espazio estalia, baina alboetan estali gabea; eta hirugarrena, espazio estalia eta mugetan partzialki itxia. Hiru guneei batasuna emango dien elementu aglutinatzailea egitura izango da, itsasontzi baten zuakerren gisa, modu seriatuan eta erritmikoan jarraitzen dena. Egitura osoari dagokionez, zonaka itxiko da, funtzionaltasuna nabarmentzeko eta hainbat eta aldi bereko jarduerak egin ahal izateko.

Espazio itxi eta girotuak bi solairu izan-



go ditu. Beheko solairuan, erabilera anitzeko zona nagusia aurkitzen da; besteak beste, ospakizunak, proiektzioak, bilerak edo erakusketak egiteko. Zona horren alboan, bilerak egiteko hiru gela daude, tabike mugikorrez bananduak; hortaz, azalera tamaina ezberdinetara egokitu ahal izango da. Gelak, aldi berean, hiru biltegi txikirekin konektatuko dira. Goiko solairua, bestalde, espazio gardena izango da, beheko solairuko erabilera anitzeko espaziotik banandua, eta kirol-mundurekin

loturiko negozioen ekintzaileentzako haztegi moduan erabili ahal izango da. Bi solairuek nahitaezko komunak eta komunikazio-gunea edukiko dituzte. Erdiko espazioa, gutxien girotuta dagoena, higiezin osora sartzeko gunea izango da eta alboko lekuren batean edo bestean garatuko diren jardueretarako ere erabili ahal izango da eguraldi ona egiten duenean.

Azkenik, hirugarren espazioa, estalia izango da eta alboan zertxobait babestuta egongo da; eremu hori, kirol tal-

deek beraien kideak kohesionatzeko antolatutako ospakizunak eta otorduak egiteko erabiliko da. Gune horretan, itxitako zona bat ere egongo da, komunak, biltegi txiki bat eta janariaren azken tratamendurako edo tresnak garbitzeko espazioa izateko.

## Materialak

Espazioari dagokionez, ekipamendua iragazkortasun eta irisgarritasun handia izango du giro desberdinen eta kanpoaldearen artean, eta eraikin atsegin, ireki eta irisgarri baten irudia proiektatuko du. Beheko solairuan erabili beharreko materialak harrizkoak izango dira, eguneroko erabilerean eta zorupearen hezetasunaren aurrean iraunkortasun handiagoa ziurtatzeko. Material mota gogorrago horrek, estalkiaren zurezko elementuen adeitasun eta gozotasunarekin kontrastatuko du, eta horiek igarotzen den argia ñabartu eta indartuko dute, baso bateko hostoak eta adarrak igarotzerakoan gertatzen den moduan.

Oinarritzko proiektua, bere diseinuan parte hartu duten pertsona, elkarte eta klubekin egiaztatu da, parte-hartze prozesu horren ondorioz burututako aurreproiektuan egindako ekarpen gehienak jasotzen direla ziurtatzearen. Datozen hilabeteetan entregatuko da ekipamendu horren lanak hasteari bide emango dion proiektua.



## Soropil berria Fadurako hockey zelaian

Getxo Kirolak-ek Fadurako hockey zelaiko soropil artifiziala berritu du. Ekipamendu honen berritzeak 130 neska eta 170 mutil dituen Hockey Stick Club Getxo taldeari baldintza hobereenetan entrenatzea bermatuko dio. Urrian hasi ziren berritze lanak eta azaroan bizi izan ziren euri gogorren ondorioz atzerapenak jasan ditu zelai horrek. Erabilera anitzeko eremu bezala ere dago pentsatuta ekipamendu hau, eta Adrebol Futbol Taldeak eta Getxo Futbol Eskolak erabiltzen dute entrenatzeko. Aurreikusita bezala, obrak 220.000€ko kostua izan du.

## Marcos Morales, txapeldun europarra eta Euskadiko entrenatzaile

Bi domina berri ekarri ditu Raspas Arraun elkarteko arraunlari eta prestatzaile den Marcos Cesar Moralesek 2020ko Europako barruko arraun Txapelketatik; duela gutxi jokatu da txapelketa Pragan (Txekiar Errepublika). 40 urtetik gorakoen kategorian lehia-tu zen Marcos; 2.000 metroko proban urrezko domina lortu zuen, eta 1.000 metrokoan zilarrezkoa.

Bestalde, Euskadiko Arraunketako Euskal Federakundeak entrenatzaile kargurako izendatu berri du. Moralesek adierazi duenez, "Euskadiko entrenatzailea izatea ohorea eta pribilegioa da niretzat. Ilusio handiz eta euskal arrauna, potentzial eta tradizio handikoa, hobetzeko gogo biziz nago, arraunlari eta entrenatzaile gisa dudana esperientzia eta ezagutza ekarritzat".

## Urpekaritzako bataio solidarioak

Divertek eta Mare Fondum elkarrekin, Getxo Kirolak-en laguntzarekin, urpekaritzako bataio solidarioak antolatu dituzte datorren iganderako, otsailak 2, Fadurako igerilekuan, 17:00etatik 21:00etara. 10 euroko dohaintza emango da, eta dirua minbizia ikertzeko erabiliko da. Urpekaritza ezagutu eta kausa on batekin kolaboratzeko modu ona da.

